

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

148n. Zenbakia Urtarrilla

1991



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



EUSKALDUNAK
ABEREA
BASOAK
ETXEA
LANTEGIAK
ABERRIA

ZER

URTE BARRIA: IRAK'en ZER?

BAKEA

Urte barri bat asten dogun bakoitzean, bakea en eta zoriona en egarria bizkortzen jaku barruan eta orregaitik bururatzen jaku zein dan begien aurrean daukagun arazorik larriena edo bake ori arriskuan jarten dauan girorik bildurgarriena.

Aurten iñoz baiño argiago daukagu: Urte barrirako arriskua, Irak'en sortu dan arazo larria da, Hussein'ek mundua en aurrean ezarri dauan egoera artegatzaillea.

Bakea nai dogu, munduko erri guztiak alkarren lagun-tzan ikusi nai doguz, baiña Hussein'ek bakea en aurka doazen oiñarririk gorrotagarrienak ezarri nai dauz:

Izkillubidez auzoko laterrira sartu eta au menperatu. Eta laterri-artearen erantzun sendoa aurkitu ez, ba'leu, beste erri batzuk be menperatuko ebazan antxiñako Hitler'en antzera, baiña bakea en oiñarriak jarteko, erantzuna emonbearra izan da.

ARRORIOA ZIRIKATZAILLE

Egia esan, alde bietatik, guda sortzeko indarra emon dauana arrorioa da. Gudarik geienak izaten dabe oiñarrian errazoi ekonomizko bat eta emen be bai.

Batzuk esaten dabe [Irak'en eta Kubait'en ez jakula ezer galdu eta eurak konpondu daitezela. Ori gauzak ariñegi esatea da. Laterri guztiak gagoz orain zelan edo alan alkarregaz lotuta eta arrorioa bear dogunok lotura aundiagoa daukagu.

KUBAIT ZAPALDUA

Dana dala, or erri zapaldu bat dago begien aurrean. Kubait erria zan eta albo-erri batek zapaldu egin dau.

ARPIDETZA

- IRU URTETAN 1.000 PEZETA IZAN DA. AURTEN 1.200 PEZETARA GORATU BEAR.
- BANKU EDO KUTXAKO TXARTEL-BIDETZ BIALDU ZEINKE.
- ESKERRIK ASKO.

EUSKERAZALEAK

Guk euskaldunok ondo dakigu orrek zer esan nai dauan.

Ez dala erria izan? Ori esaten dauskue emen be, baiña arazoa ez da konpondu bear guda en bidez, beste bide batzuk artuta baiño.

LENGO ARAZOAK

Aragian bizi-bizi dagoan zauri ori konpondu nai danean, zapalkuntza egin eta bereala zuzentasunezko bideak artu nai diranean, errez esaten da: Arazo au baiño zarragoak dagoz konpontzeko eta areitatik asi bear da, esaterako Israel eta Palestinatarren artekoa. Eta egia da, arazoa or dago, Israel'ek be lurralde ori indarrez artu ebalako, baiña okerkeriak lendik oraiñera etorri ba'dira be, zuzenketak oraindik lenera bete bear dira.

GUDA-ZARATAK

Urte barri au guda-zaratakaz asten dogu ba, iñoz baiño egoera larriagoan. Guda asteko eguna be ipiñita dagoala. Konponduko al dira aurretik gauzak ori jaso ez dedin.

Gure irakurle guztiak urte baketsua ta zoriontsua opa dautsegu.

Bakeak ekarri dagiala gure erriaren eta munduaren aurrerapena.

Gudak ez dagiala zapuztu urteetan eta alegin aundiakaz lortzen dogun aurrerapena.



BIZKAIKO BASELIZAK

|

Orra gaurko gaia: Bizkaiko baselizak.

Baselizak, elizatxo, ermita...

Ezin nei ukatu ermita zale izan naizenik.

Nire ingurukoak ezagutzen dodaz. Bai Ondarroa, Berriatu, Markiña eta abar. Bizkai'tik zear Lea-Artibai errietako monografiak idaztean, ainbat bertako ermiten barri artzeko aukera euki dot.

Eta Mutriku, Itziar eta abarretan ibilia naz txikiak ezagutzen.

Aleginduko naz zerbait adierazten.

Ba dago Bizkaiari dagokionez, lan mardul bat, Gurua tze Arregi'k egiña, orain iru urte agertua.

Areri egokion gaurko itzaldi au. Baiña jakituriz aberats ibiliarren, euskera erabilteko oiturarik ez. Eta guk lepo andia euki. Ermitetako santu-santei indulgentziak eskatu bear ausardia parkatzeko.

Ain zuzen euskera ez erabiltetik igarten dira Guruzte'ren lan mardulean izen eta deitura batzuei buruzko akatsak. Akatsak edo txirristadak.

Nik, ondarrutar lez, esan neike Ondarroan iñok ez dautsala deitutun Zubizar ondoan dagon ermiteari "Aita Pieli". Piedadi bai, edo ta oker eta traketz berba egiten daben norbaitek "Pierari, edo Pireri".

Izen bardiña emoten dautso Lekeitiokuari, baiña... an "Piela" deitzen dautse ermita orreri, eta alboan irakurten da kalea en izena: Piedadekua. Ain zuzen il onen 17'an amaitu eben ermita orren tella barritzea eta apainketa.

Beste bat, ez da Berriatun esan edo deitzen sanaJun lorei buruz "San Juan sordi". Bai "txorti".

Baiña oneik aideko utsak dira, zerbait esateko aitzakitatzat artzen diranak. Mendi baten egon leikezan txiñuri banakak. Baiña areik be ikusi egiten dira. Parkatu.

Lan aundia

Ezin ukatu baselizei buruz gaur egin dan lanik txaloga-gari, mardul, sakon eta zeatzena, Gurutze Arregi'ren Ermitas de Bizkaia deiturakoa danik. Bizkaia'ri buruz beintzat.

Egon izan dira lan onak, batez be Andra Mari irudiei buruz. Orrela Aita Lizarralde bat, Jose Adriano Lizarralde Balerdi, zaldibitarra ena. Bai Bizkai'ko Andra Mariei buruz, ta bai Gipuzkoakoetan, zeatza zan fraile

a. Baiña a en lana, esan dogun lez, Andre Mariaren irudiak elburu zirala egin zan.

Gipuzkoa'n ba dago "Las ermitas de Guipuzcoa" izeneko bat. Errizaerriko baseliz guztiak aitatuarren, askotan ez da liburutatik ataratako aipamen arin bat baiño, zeatzasun billa ibili barik. Alaz eta Luis Pedro Peña Santiago ibiltaria danez, ba daukaz ermita batzuen zeatz-meatzezko kontuak, geienak Donosti'ko egunkari baten ia igandero argitaratzen dauzanak.

Aren lanetan sarri irakurten dira onelako erreferentziak:

"San Martin de Indaneta. Deba. "Asi nombra una ermita Lope de Isasti en su Compendio Historial, en 1625".

Orren antzera Deba berbertan San Iñazio, Santiago eta abar agertzen dira, geiagoko zeatzasun, azterren, ondoren edo lekutze barik.

Beste batzuetan Murugarren da erreferentzi lez erabilten dauana. Ala, Beasain'go San Juan'eri buruz diño: "Murugarren'ek aipatzen dau 1704 urtean".

Edo ta Azpeiti'n: Santa Kutz, "Murugarren'ek 1636 urtean desagertutat emoten dau". Santa Engrazi, "Murugarren'ek aipatzen dau, baiña galdutakotzat". Sendi Deuna, "Murugarren'ek aipatu, baiña santutxu lez". Aranaa 'ko Mikel deuna, "Murugarren'ek diño ez dagola".

Elormendi'ko Pedro deuna, "Murugarren'ek 1495'n, eta «Diccionario Histórico Geográfico'k 1802'en".
Loioala'ko Pedro deuna: "Diccionario obrek Azpeiti'ko ermiten artean izentatzen dau 1803 urtean".

Orrela, askotan, urrats bat, pista txiki bat. Egon zirala, baiña ez beti argi.

Peña Santiago'k bere "Las Ermitas de Guipuzcoa"n 878 deitura daukaz Gipuzkoa'ko eleiz etxeetan, baiña kontuan euki bear da deitura orreïn zerrendan parrokiak be sartzen dirala eta 170 inguru diranez, Gipuzkoa koan dagozan edo egon ziran eta gelditzen diran ermitetan zarpireun inguru agertzen dauz.

Onetan esan bearreko da Gurutze Arregi'k bakarrik erabilten dauzala bere iru liburu marduletan, eta 776 ermita egon izan dirala Bizkaia'n, parrokiak kontatu barik. Gaur eureta'ik 280 galduta dagoz, beraz 490 dira oraindik zutik gelditzen diran baselizak.

Esan bearreko da 776 orreitatik Kristo'ri eskiñiak, bere deitura berezikoak 70 dirala. Andra Mariaren izea nekoak 80. Santak, emakumezkoak, 135 eta santuenak, gizonezko deunenak, besteak.

VI EUSKAL ASTEA

Santuen artean ermitarik geien, Jon eta Martin deunak euki izan dabez. Biak bardin: bakoitzak 45. Urrengo Mikel deuna dator, 40-gaz, eta gero Laurentzi deuna, 31-gaz.

Andrazkoen artean, Maria Madalena da nausi, 31 ermitagaz. Ondoren Santa Marina (Santa Mañe) 22-gaz. Gero Luzia eta Kataliña, bakoitzak 16 eta Agate deuna ondoren, 8-gaz.

Gipuzkoa'n be ermitarik geien Jon deunak, bere deitura ez-bardiñekaz: guztira 48. Urrengo San Martin, 32-gaz eta Mikel deuna 29-gaz.

Andrazkoen artean Madalena, 25-gaz eta geroago Katalina eta Ingrazi. Santa Luzia'k Gipuzkoa'n Bizkaia'n baiña zerbait gitxiago: II?

Zela-ala ikusten da Euskalerriko eraspena, deboziñoia, zein bidez ibili dan edo dabillen.

Ermiten arteko bereiztasunak

Ba dagoz bereiztasunak.

Batzuk erri sarreretan dagoz. Ez dakit euskaldunak ze izen emongo eutsen orrelako ermita txikiei. Erri sarreretan, edo parroki nausia baiño lentxuago dagoz. Damu tokiak?

Toki batzuetan etorranak aurrez damutzeko ermitak izan ba ziran be, edo ta ez zala judear edo kristiñauen etsai adierazoteko, edo ta errian baketsu etorralla adierazpen lez agertzekoak, ba dira onetako batzuk Eleiz agintariak jauntxoei zigortzat ipiniak be.

Lekuona'k diño, kanpotik etorranak, gizon ona zala erakutsi nai izaten ebala, kristiñaua zala, ez moro ta ez judearra, eta lenengo sarrera orrelako ermitetan egiten ebala. Orrelako eleizak Kristo'ren edo Neketako Amaren izenean egoten dira. Piedadekuak.

Sarri euki izan dabe beste zeregin bat.

Jakiña da gure uriak, eta eleizateak eurak, ba dauke zala baserri auzoak. Eta auzoetan eriotzak gertatzen ziranetan, oitura zan lez anda bideetatik zear illa ekartzea, errirako sarreran, parrokia baiño lenago geratu bearra eukiten eben, parrokioko kanpaiak abateia jo eta baserriatik abade bakarragaz etorran gorpuagaz jaubetzeko, bitartean gorpuaren laguntzallei atsedean apur bat eta eleizarako jantzi eta itxurak astintzeko aukera emonaz.

Orrelako elizatxoak izaten ziran sarrerako atsedean toki eta parrokiako urten-bide.

Lekeitio'n bertan, an sei-zazpi baserri baiño ez dagoz, len aitatu dogun Piedadeko ermita izaten zan orrelako geldialdi eta zerbitzua egiten zana.

Markiña'n, edo obeto esanda, parroki legez Barina-

ga'n ba dago zaintzea merezi dauan ermita jator bat, egurrezko kanpaitorre zar ta guzti.

Ziortza'ko Kolejiatak inguru a etan parroki lez esku-bide zabalak euki zitun aldian, eta ainbat errietan bertako eleiztar lez sartuta eta beartuta egozan etxeetako illak Ziortza'ra lur emotera eroan bear izaten ebezane-tan, Santa Mañe ermita orretan gaua igaroten eben, bideko atsedean lez, illari gauela egiten.

Zer ziran baselizak?

Baselizak, ermitak, Gurutze'k diño, danen gain eleiz eskintzak opatzeko etxeak dirala.

Geienetan bakartadean.

Ortik euetariko zaindari batzuk "padar" deitura eukiten eben. Padar berbak bakardade usaiña dauka. Padarra, bakardadean bizi edo bizitza ori artzen dauana.

Ondarroan bertan, Antigua ainbesteko bakardadean egon ezarren, eleiz a etako oraingo zaindaria en aurreti-koak padarra deitura euki eben.

Peru Abarka'n Mogel'ek erabilten dau berba ori ondorengo esaera onetan lez: Nire antsiñeko oe eremutar eta padarrak euki ez ebena...".

Ermita guztiak Kristiñauen denboretakoak al dira?

Ba dirudi batzuk aurreratiagokoak izan leikezana.

Jakiña da Baiona'ko gotzai bat izan zala Euskalerrizear kristautasuna sartu ebana.

Deduzko litzake gure ermitak a en ondorengoak izatea, baiña dirudianez Barandiaran'ek ondo esaten dau Gurutze Arregi'ren liburuen sarreran, eta Gurutze berberak be aitaten dau, batzuk istori aurretikoak dirudie, ala Kortezubiko Santi Mamiñe, koba ezagunen gain oiñarritua: edo ta Mañariko Salleunte, Silibranka'ren babesean, edo ta Txarratu'ko (Albina) bisigotikoak. Eta abar.

Onetan, bitarte txiki bat egiñaz, esan neike On Manuel Lekuona zanak, bere irizpide arraro bat egin ebala bein itzaldi baten, ermitak santuen izateagaz bananduta eta baita Santuak dauken euskal deitura berezilka.

Beretzat, Santu ermitañoak V, VI eta VII gizaldiko santuen izenekoak dira. Ermita-kobak edo koba-ermitak.

Zegaitik daukezan izen orreik?

Lekuonak diño, azalpen bat au izan leikela: Izen orretako ermitañoen bat koba orreitan bizi izatea.

Bat, Santi Mamiñe, Bizkaia'n; San Adrián, Gipuzkoa'n; edo San Tirso, Araba'n.

Eta istoriari buruz, ermitak lau maillatan bereiztu leikezala, diño:

1.-Gaurkoak: esateko *San Iñazio*.

2.-*Santiagorako* ibillaldiak, peregrinaziñoietatik sora tuak: Santiago, San Martin, Santa Marina, San Pelaio, Santa Leokadi...

3.-XIII garren gizalditik onuntz sortutakoak: San Blas, San Sebastian, San Anton, Santa Barbara, Santa Luzia.

4.-Santa ermitañoenak, kobaetan bizi ziranenak.

Edo ta beste era batera, beste sailkapen au:

1.-San izena daroenak: Au da, San Frantzisko, San Iñazio ta abar.

2.-*Santi* izena daroenak: Santiago, Santi-bat (Agea da), Santikurutz...

3.--Geroagokoak: *Done* dunak: Donibane, Doneztebe ta abar.

4.-Zarrenak: *Ez done, ez santi ez san* izenik daukeanak: Salbatore, Saturdi, Madalena bera.

Ermita batzuk, lengoen tokietan?

Au da, ermita batzuk, len bestelako jainko ta Jainkosen toki berbertan aldatuak izan ete ziran?

Onetan be, or lekuko Morga'ko San Esteban, Foruaa'ko San Gregorio, Lemoa'ko San Pedro, Larrabetzuko Salbatore eta abar, uste ori Sendotzen datoz.

Beste batzutan, leizak, kobak biurtu ziran ermita. Or Urduliz'eko Santa Marina. Or entzute aundiko dan San Adrian, Otzaurte'n. Ermita aretan bateatu eben bein Lazkano'ko Felipe, bere aita besutako Felipe el Hermoso eta bere emazte Juana zirala, Flandes'etatik etorri zan baten. Jakiña da ermita a leiza baten barruan dagola, ain zuzen Gipuzkoatik arabar lautadarako igarora bidean. An bertan ermita oneri " Sandratei" deitzen dautse. Emen egon zan Andra Mariaaren irudi erromanikoa orain beste ermita barri baten gurtuten da, Otzaura te'ko Andra Mari deituraz.

Ezpairik ez dago baseliz, ermiten sortzeak, euskeldunen artetik antziñako sorginkeri asko kendu edo galdu eragin ebazala.

Uste da, izan be, ermitetako asko len sorgin zulo, lamiña toki edo gaizkilleen tokietan sortu zirala: ain zuzen be gizona makaldu eta zorabiatuten eben siniste eta oiturak, sinismen barrien indarrez gainduteko.

Arbazegi'ko Santa Eufemi sorgiñen leku zala esaten da, eta ermita egin eta galdu zirala.

Arbazegi'n Santa Luzia'n euken iltegia. Baiña arra no batek jentil baten buruaazurra artu eta Ziarrotza'n jaurti eban.

Aulesti'ko Santa Eufemi'n jentillak bizi ei ziran. Oraindik arriola areitatik ataratako arriapendulak an ikusa ten dira.

Bermeo'ko Santakutz. Lamiñak bizi ziran eta sorgiñak.

Gizaburuaga'n, Oibar. Ermitatik 50 metrotara an dago sorgiñen oin-urratsak igarten diran koba.

Ibarrangelu', Atxerre'ko San Pedro. Sorgiñen dana tzaleku ei zan. San Gregorio egunean gatza bedeinkatu eta banatzen da.

Nabarniz, San Gregorio. Sorgiñen aurkako bedaina kaziñoa egiten da, ermita au egon zala uste dan tokian.

Abadiño'n, Atxarte ermita, Kristoandako deitzen daua tsena, jentillen denporetatik ei dator. Antxiña jentillak anka bat Untzillan eta bestea Aitzatxikien eukela ura edaten ei eben Atxarteko errekan.

Gauzak orrela, azken baten ermiten agerpena, krisa tiñautasunaren garaitza da. Batetik bakardadea en misa terioa galdu eragin, bildurra sartzen dauan ixiltasun luzea eten eta gizonari bakea eskiñi.

Ezin ukatu onelako zerbaitek sartu ebala euskaldua netan ermitetarako maitasuna.

Gaur, ermitetara joateko zaletasuna galdu egin da, baiña ermiten maitasunik ez.

Erromeri asko galdu ba dira be, gero ta alegin geiaa go egiten da ermita zarrak txukun zainduten. Orrek zerbaite erakusten dau. Ba dira tartetan eurretan zatarkia riak egiten dakiezanak. Nik esango neuke koldartiak dirala. Azkatasunean biziten ez dakienak. Sorginduta geratu ziranak.

Baselizen erabide batzuk

Ba dagoz baseliza batzuk euren oizko zeregiñagaz batera, bertan egin izan diran ekintza edo artu daben zeregiñekaitik, bereiztuak diranak.

Esate baterako *zingarriak*, errietako goraberetan itz zingarri edo erabagi zingarriak bertan artzen ziranak.

Juraderas, erderaz. Besteen artean orrelakoak dira:

San Pedro, Munitibar'en.

Gautegiz Arteaga'n, antxiñatik aritz zintokia zana-ren alboko ermita.

Gernika'ko Andra Mari, orretan ezagunena, kon-tuan artuta Bizkai'ko Aatzar Nagusietako eleiza bera dala.

Yurreta'ko San Martin.

Otxandio'ko San Martin.

VI EUSKAL ASTEA

Gernika'ko San Esteban.

Abadiño'ko Gaizkatzaillea, Salvatore. Gerediaga'ko lez ezagutzen dana, bertan egiten ziralako Durangalde edo Durango'ko Merindadeko batzarrak.

Durango'n bertan Mikeldi'ko San Bixente.

Batzar tokiak. Batzar tokitzat, ez erriarenak, Kofradien izenekoak baiño dira ainbat ermita. Ala gure inguruan San Martin Murua'koa, au Kofradiakoaz batera Kontzejukoak be egiten zirana. Or Berriatu'n Mereludi'ko San Antolin. Or Berriatu berbertan Madalena ta abar.

Guruz-tokiak. (Humilladeroak)

Ainbat orrelako dagoz, eta orreitan, gorago esan dogun lez, gizonak euren apaltasuna, edo lotsa erakutsi bearra eukiten eben. Piedadeko eleizak deitzen diranak izan dira zeregin orretan geienak. Ala Dima'n, Zeanuri'n, Lekeitio'n, Ondarroa'n. Ala Urkiola'ko Kristo.

Kanposantutako zeregiñetakoak

Ba dagoz, beste batzuk, Kanposantuen sarreretan dagozanak, gorpuak ara eroatean lenengo otoiitzak eta abar bertan egiten diranak.

Ala Forua'n Kurutzekoa.

Bolibar'en be, galdutako ermita bat, kanposantuko sarreran egoan.

Limosnariak

Beste ermita batzuk, bide egal, bide kurutze eta toki "estrategikoetan" egiñak dira.

Ermita orreik limosnari edo ukar batzaille entzutekoak dira.

Ala Otxandio'ko Antonio deunen ermita

Ondarroa'ko Asterrika'n, Errementariko baserri alboan, an dago San Lorentzo Santutxua.

Gautegiz Arteaga'n Kristorena.

Markiña'n, Erdotzakua.

Bi dagoz ia alkar jotan, baiña bide barria egin zanean, errepidea egin zanean, bidetik egalean geratzen zalako ermita, beste txikiago bat egin eben, bidekoak eskupekoa emoteko aukeran euki egien.

Ba dauka karteltxu txiki bat, bertso oneikaz:

Marija, doncella eder
ta Erdotzakua,

zuri esaten yatzu
Osasunekua.

Bidian dabilzanen
lagun segurua,
izan zaite bada
bere debotua.

Ondarroa'n bertan, Bitartekoa deituten dan ermitan, gaur erdi erreta, Antigua'tik metro gitxitara dagonak, lengo gizaldietan Lekeitio'tik Ondarroa'ra bitarteko errepidea egin aurretik, andik onako bidea Antigua'ren albotik igaroten zanean, orrelako zeregiñen bat eukiteko jasoa izan zan itxura dauka. Limosnarien artean, aipatzeko, Arrankudiaga'ko San Antonio.

Osasuna eta ermitak

Euskalduna, beste erriak lez, sinisteen mendeko izakide da. Erlejiño eta siniste majikoetan fedetsua.

Kristiñau erlejiñoia emen sartu aurretik, ezpai barik, jentil, sorgin eta abarretan siniste bizia eukan. Gero, kristiñautasuna sartzean, ez zitun orrelako guztiak onartu, baiña bai batzuk gure jendeak bete-betean jarraitu.

Orrela, askotan, ermitak izan dira bakoitzaren gainxoen bitartekotzat artu edo erabili izan diranak.

Bitartekotza ori agirian dago, eleizetara gaixotasun ezaugarri edo kendu naian eroaten diran orogiarrietan. Au da, sinistuten da edo ala nai izaten da, bakoitzaren kentzea, baiña gaitza (gaisoa) beste toki batera aldatuta.

Toki ori, askotan, baselizak eurak dira. Orrela or doguz askotan ordezkotzat eroaten diran opariak: dirua, kandelak, garia, orratzak, ollo zuriak, zapiak, ura eta abar. Or baita eleiz argiontzietarako olioak.

Eskintza guztiok ritoen bidez egiten dira.

Ermita bakoitzak bere sinistea eukiten dau.

Esate baterako, osasun ona lortzeko, San Kosme eta Damian'en ermitetara joatea oituten da. Ala Xemein eta Gordexola'n.

Espiritu txarrak izaten dira askotan osasuna aidean erabilten dabenak. Orretarako, aurretatik alenduteko, Zalla'n, Zarikete'ko San Pedro'ra joaten dira. Eta sorginkeriak kentzeko, ermita a etan ezin lei edozelan ibili. Ate batetik sartu ta bestetik urten bear izaten da, bitartean gatza jaurtiz. Iñoiz be ez da biurtu bear sartzen dan ate bardiñetik.

Espiritu txarrak sartzen daben amorrua kentzeko, Barakaldo'on Santa Kiteria erabilten dabe bitarteko.

Azaleko gaitza, ka etxak esate baterako: San Juan eleizara joan bear izaten da iru bariku jarraikoetan. Eta ur bedeinkatua batu.

Zaldarrentzako, San Lorentzo erabilten da bitartea kotzat. Ala Meñaka, Mungia, Elorrio, Gueñes, Zeanuriko Ozerinmendi eta abarretan. Baiña ba dira beste bitartekoak be. Bermeo'n, Larrosa'ko Amagan sinisten da orretarako. Bederatzi egun jarraikoetan larrosa arboa lari buelta bat egin eta bederatzigarrenean bederatzi bidar.

Ereñozar'en tellatutik jausten dan urak sarna eta azaleko gaixoak osatzen dauz.

Lekeitio'ko arrantzaleak, gaur baiño neketsuago txalopetan erramutan jardutean ipurdiak zaldarrez beteten ziranean, Gizaburura joaten ekien, Oibar'eko Ama ikustera.

Dima'n sulfurodun ur bedeinkatua artzen da Azkuea naga'ko Santiago'n.

Markiña'n, Plazakola'ko Santo Domingo'n, San Roke egunean orioa eskiñi eta argontzitik artzen zanagaz azala igortzi.

Umegintzan, Aurgintzan, era askotako eskintzak egia ten ziran.

Aixerre'ko San Pedro'ri, oillar zuri bat eskintzen zan, umeari jaiokeran ipurdiko zuloak urten ez egioan (Prolapso rectal).

Arratzu'n Santa Mañe'ri erdibitze on bat eskatzen da.

Arrieta'n, Jainko'ko Andra Mari eleizara joaten ziran aurdun egozan andrak, San Ramon Nonato'ri erdibitze on bat eskatzera. Santu orren imagiña kendu ebenetik, galdu zan oitura ori.

Murelaga'n, Murla'n, kanpaia jotzen eben, erdibitze on bat eukiteko.

Ea'n Tala'ko Ama zan bitarteko, orretarako.

Mendexa'n, Sokorri'ko Ama. Andra Mariaren jantzi zatiak ipinten jakoez, eta oneik oillo zuri bi eskintzen dautsez ermitari.

Muxika'n San Roman'eri eskabidea egiten zan, edo neska gure zan agertuaz.

Markiña'n Ama antzutuak San Jazinto'gana joaten dakie.

Mallabi'n, Areitio'ko Andra Mari dago orretarako. Otxandión Erremedijuetako Andra Mari. Lengo denboa retan orioa eroaten eutsen: orain kandelak eta dirua.

Umeak berbetarako atzeratu igarten diranean, Aulesa ti'n San Anton' engana eroaten dira.

Forua'n San Kristobal'era.

Lekeitio'n Tala'ko San Juan'era. Baiña kontuz, bederatziz egunetan eroan bear izaten da umea, eta ume

eroantzaileak ermitarako osteria, joan eta etorria, ixilik egin bear izaten dabe.

Zeanuri'n Ogaragoitiko San Andres eta Arzuaga'ko San Juan daukez orretarako.

Ametsen arduradun edo bitarteko San Bartolome eta San Mames (Santi Mamiñe) dira aukeratuak. Bartolome deuna Ea'n eta Zamudio'n. Santi Mamiñe (au da: San Amando) Erandio'n eta Kortezubi'n. Emen esaten dan eskintza au da: San Ames, bart egin dot amets, ona ba da bion alde, txarra ba da beyu artez. Yurrea ta'n len orioa eroaten zan ermitara, orain kandelak eta dirua.

Lo ona egiteko, Murelaga'n San Juan'eri eskatzen jakon: Erandio'n San Mames'eri; Zeanuri'n Ogaragoitia ko Ander deunari.

Umeak ondo azteko, Markiña'n San Jazinto'ren ermita tara joaten zan; Zornotza'n Larrinetako San Pedro'ra joan eta San Pelaio'ri eskatzen zan mesede ori eta ollar bat eskiñi. Dima'n Lamindano'ko ermitara umeak eroan eta euren pixua garitan eskintzen zan.

Ume jaio barri negartiak agertzen ziranetan, ^{Xemein'en} Erdotza'ra eroaten ziran iru edo bederatzi egun jarraikoetan.

Umeak txisari eutsi eziña galdu eragiteko (enuresis) Bakio'n uste dabe San Pelaio'ko eleizpe atzean iru bidar txis eragin ondoren, oean ez dabela egiten. Antxia ña loaibiltzaile (sonambuloak) eta oean txis egiten ebea nak, ermita orretako San Esteban'engana eroaten zituen, eta bakoitzaren soiñak aña gari eroan pixutan.

Bularretako miña: Onetan Agate deuna da bitartea ko. Ala Natxitu, Barakaldo, Dima, Izurtza, Zeanuri eta abarretan.

Kaspa kentzeko: Aulestiar umeak Ondarroa'ko Antia gua'ra eroaten ebezan.

Etena, emia: Zornotza'n, Ofrendo'ko San Juan. Jakina garria. Orretarako San Juan bezperan, gabeko amabiea tan eroaten da ermita ingurura. An aizkoreagaz aritz bat ebagiten dabe, zati bi bardiñetan, banatuta euki eragiñaz ziri indartsu baten bitartez. Etenduna eroan eta anaiak billoiztu bear izaten dabe. Amabiak jotzen astean, anai batek zulotik zear igaro eragiten dautsa, beste anaiari esanaz: Eutsi anai. Besteak ekatzu anai, erantzun eta zulotik barik kanpo aldetik etenduna biura tu anaiari, eutsi anai esanez. Iru bidar egiten da amaa biak jotzen diarduen artean. Gero etenaren alkondara aritzean eskegiten da, eta aritza lotu egiten da, sokakin. Aritza igartzen ez ba da, ezaugarria da gaisoa sendatuko dala. Aritza igartzen ba da, gaisoak erremediorik ez eukan ezaugarri izaten da.

Buru argia eukiteko, Ipazter'en Santiago'ri olio eskintzen dakie.

VI EUSKAL ASTEA

Buruko miñak kentzeko, Ondarroa'n Gorozika'ko San Juan ermitara joan bear izaten da. Markiña'n, Muruetako San Martin'era. Barakaldo'n, Agate deuna, Zalla'n San Pantaleon.

Gerriko miñentzako bitartekoa: Aulesti'n, Santa Eufemi. Argizaria gerria lotuta joaten ziran erromesak, ara dagozan berreundak arrizko mailletan gora. Elorri'on be Araunako Santa Eufemi. Dima'n, Agate deunaren ermita.

Begietako miña: Onetan Santa Luzia da bitarteko Gernika, Mendexa, Etxano, Zeanuri eta abarretan. Soporta'n bardin. Emen koba barruan aitz punta bat dago. Bertako autsakín begiak igortziten dira eta Santa osaketa eskatu.

Belarriko miñetarako. Forua, Igorre, Berriz eta abarretan San Kristobal. Etxebarria'n Santa Engrazi.

Tripetako miñak: San Antolin, Zamudio'n.

Agiñetako miñak: Santa Poloni. Ala Arretxiñaga, Dima eta Urkiola'n.

Erreak: Onetan Lorentzo deunari emon bear txape-la, izurritetan Erroke deunari itxi bear jakon lez.

Paralísietan, Markiña'n San Jazinto dauke.

Amorrúa igarten danean, Barakaldo'n, Santa Kiteri.

Eztarriko miñetarako, San Blas bere kordoiagaz gogoratzen ba da be, Zeanuri'n Axpe'ko San Pedro'ra joaten dira, Aulesti'n Jesus Gurutzetuaren ermitara.

Gaitz kutsugarrietan, Gamiz'en or dago San Miel.

Baiña ba dagoz pertsonetatik gaindiko best premiña eta gaisoak. Ala abereenak, esate baterako: Orretarako San Anton. Baiña olloen gaiso eta erleei eztiá eragiteko, Morgatarrak San Juan Bataiatzelleari egiten dautsez arrenak.

Gauza galduak aurkitzeko, Sukarrieta'n, Abiña'n, San Antonio'ri'eskatuten dautse. Dima'n Biteriño'ko San Millan'era jotén dabe. Zeanuri eta Orozko'n, San Adrian.

Ba dago baita soldadutza edo gerratara joan bearretako zaindaria: Elorri'n San Bartolome gogoratuko datusue orretarako.

Eta ezkongaiá billatzeko? Esan bearrik ez, San Antonio. Baiña zelan?

Or dago kakua.

Urkiola'n, an dagon panel baten orrats bat sartu bear izaten da. Beltzerana nai ba da, orrats baltza. Kirrua, rubixoa nai ba da, zuria.

Baiña ba dagoz orretarako beste bide batzuk be. Arretxiñaga'n, Markiña'n, iru bira egin bear izaten dira aitzen azpitik zear.

Dima'n, Ama Neketu edo Piedadekoaren ermitan, ango burdin errejaduran tartean dagon lore nausiarí musua emoten dautsanak, ezkon laguna billatuko daua-la ziurtzat emoten da.

Eta ni arrantzale errikoa izanik, ezín neike amaitu sail au arraiñari edo itxasoari buruz zerbait esan barik.

Bermeo'n, Kurutze eta Santa Marina ermitan, burubako arrizko irudi bat egon zan. Uretara jaurtiten zan arrantza eskas ebillanean, ugaritzea eskatuz.

Bermeo'ko arrantzaliak ba ekien baita Busturiko San Bartolome'ra joaten, erromes, eta aldarán eurak gura eben eskaria idatzita itxi.

Ondiz, Leioa'n, arrantzaleak itxasora joan aurretik ermita a etara joaten ekien.

Ibarrangelu'n, Atxerre'ko Kepa deunaren ermitan gatza bedeinkatzen zan eta gero txalopetako gaiñean "kubiertan" zabaldu.

Ondarrutarrak antxoa denboran ba ekien Berriatua'ko Kristo Kurutzekora joaten, arrain erreguka.

Eta zer esanik ez, Ondarroa'ko andrak, inguruko ermita guztietara egiten zituen osterak, gure erria "miserian" bizi izan zan urte luzetan.

Baselizak eta zaintzalleak

Ermitak ba dauke istorian zear asko aztertu ez dan bizigarri bat: Zaintzalleena.

Ermita batzutan serorak, beatak, freyrak. Orrela deitzen ziran. Beste batzutan ermitañoak, padarrak.

Ermita batzuk alboko etxe edo aterpea eukiten dabe, len bertako zaindaria bizi ziranena.

Gizon eta andra a eik, ez ziran ermitako zaindaria nai eben aiñako errastasunez sartzen.

Erriak emon bear izaten eutsen baimena. Ez batek edo bik, erriko batzarrean baiño.

Or dagoz eleiz eta udaletako artxiboetan orretaz berba egiten daben agiriak.

Ondarroan 1541 urteko Uztailla'ren 22'an zabaldua dago Liburu bat: "Libro Padron del Concejo para hacer el repartimiento y derrama concejil" deitzen da. An gai orretazko zerrenda luze baten ondoren, onelako erabagia agertzen da: "Auto de lizenzia que se da a Dominga de Ibiri por Beata de la Cofradía de santa Clara". Eta an esaten da emakume ori Jainkoaren zerbitzuan ermita aretako "Freyra" zateko eskiñi zala. Eta batzarrek onartu egin eban.

Batzar ori, eleiz inguruan ospatu zan, guk esaten dagon lez, "eleizako korretan".

Ba dirudi zeregin ori bakardadean zintzo eroatea ez zala ain erreza.

Ba dirudi egon zirala larregikeriak, nabarmenkeriak.

Origaitik etorri ziran gero gotzaiñak, bakardadeko biziera erreik galerazoten.

Baiña ermitetako serorak eta ermitaiñoak izan ziran, geroago beste era baten, konbentuetako alkartasun eta bakardadetan sortu ziran fraile eta monjaen taldeen oiñarri edo iturri.

Orrelako gizon edo andrak bizi ziran etxeak ba egozan Bermeo'n San Andres eta San Migelen.

Gizaburuaga'n, Oibar'en.

Ibarrangelu'n, Atxerre'n.

Lekeitio'n Santa Elena, Azurtua'ko Madalena eta San Nikolas ugartean.

Barakaldo'n Santa Kiteria'n.

Orozko'n, Mugarraga'ko San Migelen.

Urkiola'k beti euki izan eban bere santu zaintzalea.

Gordexola'k bere freila, serora eukan Isasi'ko Andra Mari'n, eta 1584 urtean, Gotzaina en ordezkaria ikus-taldi bat egitera joan zanean, galerazo egin eban andre ori eleiz atadian edo bertako iltegian bizitzea.

Ondarroa'n, San Juan ermitan, 3 beata eta 3 serora egon zirala irakurten da beste agiri baten.

Ermitak eta erria

Ezin ukatu ermitak, gizaldietan zear, erriaren maitasun eta begirune osoa euki izan dabenik.

Auzoetako jaiak, askotan, erri osoko jai lez ospatu izan dira, geienetan lanerako be opor eguntzat artuta, gure denporak arte.

Eta or jarraitzen dabe askotan betiko oiturak. Gaur be, jai ospatzeko, anaitasuna agertzeko, berogarriak eta gozogarriak emoten dira:

Gozoak eta ardaua.

Paittarra eta ogia.

Ardau zaragia eta bakallaua.

Txorixuak eta txarri ainkak.

Artopillak.

Ardau zuria, gaztaia eta ogia...

Luze litzake banan-banan zeaztutea. Geienetan erria edo Kofradiak dira emontzaille. Gizaburuaga n, benetako anaitasunez ospatzen dabe Oibar'ko eguna. Etxe bakoitzak etxean gertutako amaiketako eroaten dau eta famili guztiak alkarrri eskiñi eta trukutzen ibiltzen dira, egun orretan erri guztia famili bakar bat lez agertuaz.

Baselizak eta jakingarriak

Baseliza batzuk, ba daukez bereiztuten dabezan jakina garri batzuk. Labur labur aipatuko doguz batzuk, danea nak luze litzakeata.

Ereñozar.—Bertan idinarru bat dagola, esaten da, lurpean gordeta, urrez beteta.

Mungia.—Zumintza'ko Mikel deuna.—Eleiz absidea en atzean, zazpi kankaillu urrez beteriko zazpi potiki eukezalarik, urrez beteta, eta zazpi muluetan Frantzira eroan zirala.

Bermeo.—1912 urtean, 115 arrantzale itto ziran atua netan ebiltzala. Jendeak pentsatu eban zeruko zigorra zala. Origaitik Klara deunaren irudia kendu eta Madalena ipini eben.

Gernika.—Santu motzak deitzen dautse Sortzez Garbikoan dagozanari. Amabi apostolu ladrilluz egiñak.

Lekeitio.—*San* Juan Talako'ra eroaten zan olioia, balien saiña, urtuta, izaten zan. Izurri denporetan laza etotzat erabilten zan ermita au, eta bertan sartzen ebezan ezpaian egozan itxasontzietan ibilitako arrantzaleak.

Itxasoaren asarre aldietan, erriko umeak joaten ziran bertara Salbea abestutera.

Ibarrangein.—*Santa* Marina (gaur galduta) Akorda'n egon zan. Urtero, Uztailla'ren 18'an Mundaka eta Ibarrangelu'ko udalak Mundaka ibaia en erdirarte bakoitza bere txalopetan joaten ziran, eta Ibarrangelu'ko alka-teaV, ibai erdira eltzean, tella bat jaurtiten eban, arartea ko jaubetasuna euren zala adierazteko.

Abadiño.—*An* esaten ekien Ondarroa'ko Ama Birgiñak lau aizta eukazala: Andikona, Begoña, Lekeitio eta Orduña'n.

Abadiño.—*San* Antolin.—Ermita onen alboan batu ziran 1839 urtean Espartero eta Maroto generalak gerraari amaia emoteko asmotan.

Orozko.—*San* Roke.—Ermita onetan San Isidro, San Roke eta onen emaztearen irudiak dagoz.

Orozko.—Katadiaño 'ko San Adrian'go Santiago.—San Silvestre, Solozelaian agertu zala esaten da, eroaten dauan auzoan.

Orduña.—Antigua.—Umeak pixatzen dira eta pixua en salneurria garitan emon. Gaur, pixatuarren, ukarra emoten da.

Zeberio.—Zeberiogana'ko Andra Mari.—Kofradi egunean bazkaria emoten da. Garbantzia eta ogeitamar erralde okelatan.

Zeberio.—*San* Adrian.—Garizuma aurreko domekan "kanpromatxo" eguna. Taloa eta tostadak eta txitxiburduntzi.

VI EUSKAL ASTEA

Arrankudiaga.—*Santa Ana.*—Egun onetan egiten da mugarren ikerketa.

Markina.—Murua'ko San Martin.—Ondarroa'ko arrantzaleak penitentzian joaten ekien ermita onetara.

Durango.—*San Bixente.* Emen egon zan, eleiza eta etxe artean, Mikeldi. Gero ermitaren atadian ipini eben, eleiz-portalian.

Elorrio.—*Oitura* askoko dira emengo ermitak. Bat, Argiñeta, istori luzekoa da. 20 illobi eta 5 il-ezauzarri dagoz inguruan.

Portugalete.—*Zazpi* ermita egon ziran. Gaur bakarria dago.

Santurtzi.—Ermita zar guztiak galdu ziran. Bederatzi.

Sestao.—Bardin. Iru galdu ziran.

Trapagaran.—*Ermita* guztiak galdu ziran.

Zaldibar.—*San Lorentzo.*—Errekan sartzen eben zaindaria, euria eskatzeko premiñetan.

Elorrio.—*San Esteban.*—Donilatza jaso ondoren, oitura zan baserrietatik zear errondan ibiltea eta gero txokolatada bat euki.

Ondarroa.—Antigua.--Gure denporako zarrak sinistu egiten eben Antiguako Ama, ekaitz egunetako gauetan, itxasondoan ibiltzen zala, eta iñoiz busti-busti eginda be iruditu jakoen eta negarrez errezuka jardun, euren gizonak itxasoan gau txarra igaroko ebela irudituta.

Orrelako siniste, oitura, gertaera eta ekandu asko esan leikez. Armita guztiak dauke eurretan gogoratzen daben zerbaite.

Gure ermitetan, gure zarren fedea gogoratu bear da gain gañez. Egin ziran ermita ederrak. Beste asko, Yurreta'ko Goyuria'ko Andra Maria en kantuetan gogoratzen dan lez:

Zuk aita arotza al dozu?
Auxe esan egiozu.
Ermitatxo bat egizu,
zazpi lata ta zortzi tellagaz
ermitatxo bat egizu.

Eta ermitak or dagoz. Gure erriaren istori zar eta zegaitik ez barri be?

AUGUSTIN ZUBIKARAI

Baselizak eta euretako kantu batzuk

Ama Birgiña Gaidotzakua.—*Berriatua*

Ama Birgiña Gardotzako,
gure ume au ez da ezetako,

ez loditzeko,
ez argitzeko.

Iru zapatutan etorriko naz eta
mesedetxu bat beretzako.

Ama Birgiña Gardotzakoari bezperak kantatu ezke-
ro, jakea lepora.

San Lorentzo.—*Asterrika. Lurrez Berriatu, eleizaz Ondarroa*

San Lorentzo'k esku baten sua,
Asterrikan otz ez dana berua.
San Lorentzo'k esku baten su bizia
eta bestean prest illintia.

Asterrikako tontorrean
Aita Lorentzo deunari
Asoalditikan Asterrikan
dogu Jaun eta Zaindari:
guri zerutar begiak
begira begira dauzka
izan bedi betirako
gure esperantza eta poza.

San Antolin.—*Berriatua*

San Antolin, txistu ta tanbolin,
gona barrenak aidean egun guztin.

San Gregorio.—*Berriatua*

San Gregorio, belarriko miñak kentzeko
eroan botilla bete orio.

Arteaga.—*Kandelario*

Kandelario lerijo
atxari ura darijo,
Makatza ala madari
nun da Peru Motxori?

Berriatua.—*Madalena*

Madalen Arantziko
odol garbiak garbitzeko.

Ondarroa. San Juan

San Juan'ek diño bere egunian
zelebratzeko fiesta,
kastigatua izango dala
lana egiten dauana.

San Juan, San Juan,
San Juan Bautista,
zelebratu daigun
gaur bere fiesta.

Ibarrangelu.—*Atxerre ko San Pedro*

Esaik amairu!
 —Ez dok amairu.
 —Bai dozak amairu
 —Ollarrak jo dau munduen,
kaka or, kaka emen,
 zabaldu dau mundue.

Kortezubi.—San, Mames

San Ames,
 bart ein dot amets,
 ona bada bion aldez,
 txarra ba da bion kaltez.

Nabarniz.—Santiago

Españako patroia
 Aite Santiago
 moruen kontra
 jarri zan lenago.
 Gerra irabazita
 oin zeruan dago,
 zegaitik egin zuen
 ainbeste milagro.

Ondarroa.—Santa Klara

Bieta zara Klara,
 euskeraz Argia,
 zu zara zeruetan
 dontzella garbia.

Yurreta.—Goiuri 'ko Andra Mari

Abuztua en amabostian
 Andra Mari goizean,
 debotatxu bat billatu neban
 mezatara bai joian.
 —Zuk aita arotza al dozu?
 Auxe esan egiozu,
 Ermitatxo bat egizu,
 zazpi lata ta zortzi tellagaz
 ermitatxoa egizu.

Mallabia.—Goitana 'ko San Juan

San Juan,
 arrautza bi kolkuan,
 bela bi altzuan,
 sorgiñak eta lapurrak erre,
 artua ta garixa gorde.

Mañari.—Santa Kruz

Antonio'ren deira
 illak dira bizten,
 itsuak baketu,
 lotubak askatzen.
 Geisuak osasuna,

itsuak argia,
 errenak ibiltia
 biar dan guztia.
 Erregutu gugaitik
 santu ain argia,
 guztiok izan daigun
 betiko gloria.

Balmaseda.San Sebastian eta San Roke. Koltiza

San Sebastian, San Roke y San Fabian,
 encima de la peña están,
 uno pedía vino, otro queso y otro pan.

Zamudio. San Mames

San Mames, San Mames,
 gaur gabeen ingo amets,
 ona ba da bion partez,
 txoria bada biok aldrebes.

Igorre.San Juan

San Juan Bagillean
 denbora ederrean,
 sugeak eta sapoak erre,
 artoak eta gariak gorde.

San Juan.—Toki askotan

San Juan gaur dala,
 biar dala Doniane,
 etzi San Juan biaramone.
 Gure soluan lapurrik ez,
 sorgiñik be ez,
 ba dagoz bere
 erre beitez.
 San Juan, artoak eta gariak gorde,
 lapurrak eta sorgiñak erre
 beste guztiak be erre.

San Antonio.—Toki askotan

Aita San Antonio Urkiolakua,
 askoren izeneko santo debotua.
 Askok egiten dio san Antoniori
 egun batean joan da bestean etorri.

Zeanuri.—Beobide'ko San Adrian

Aldaingo errekarra
 ekarten dabe
 siketen denboran.
 Bertan bustite
 eroaten dabe
 euria egin dagian.

VI EUSKAL ASTEA

Santu batzuk.—Ondarroa

Ta San Juan,
nekez etorri ta arin juan.
Ta San Pedro,
gixonak ardaue edateko:
ta Santixa,
gixonak baiño andrak ordixa:
ta San Roke,
edango leuke ba leuke.

Mundaka.—San Pedro

San Pedro, zeruetako giltzaren jaubea,
zeurea txalupea, neurea sa ea.

Santa Luzia

Andra Santa Luzia,
puxkat artilleria,
nok edan dau emen ura?
—Aingerutxo batek.

—Zenbat bidar?
—Iru bidar.
—Jesus milla bidar!

Aulesti.—Kandelarioz

Kandelarioz eguzki,
negua dago aurreti:
Kandelarioz edurra,
joan da negua en bildurra.

Nabarniz.—San Kasiano

San Kasiano, obispo jauna,
eskola maisu entzuna,
zure kofrade ga ean legez,
egizu laguntasuna.
Orainartean usu dan legez,
gatoz gu zure etxera,
etxeko andrea, bota egizu,
limosna on bat sakura.

ABADEAK ETA ELERTIA

Emakume ta gizaseme jatorrak:

Auxe dozue gaur nire itzaldia en gaia: *Abadeak eta Elenia*. Gai amatsegiña niretzat. Eleizgizon naz, eta neure bizitza osoan euskeraz jarduna, eta urteetan eusa kal elerti edo literatura niekiña. Gai atsegiña, beraz.

Eta zuontzat be atsegiña izan daiten, ez dot beroa nen azalpena mordoilloka egingo, al baita eta ulert-errezan jarririk baiño. Zeatz-meatz azaltzen asi ezker, izkuntza guztietan lez, gai biurri samarra izango litzakit; gure ariketa onekin ori jazo ez dedin, basarte ortatik iges egiñik, eta zuentzat aspergarri ez izateko, gizaldi ontako euskal idazle bizkaitar urtenekaz osotuko dot neure jarduna. Eta asteko, ona euskal idazle erraldoi bi: Txomin Agirre ta R. M. Azkue.

Txomin Agirre

Ondarru, itxas-ertzeko erri txanbeliña, arrain eta kresal-
ausaiñez bakarrik ez da ospetsu; gizasemeak be, eta zer askotan, elertian ez gitxi, leen eta gaur, zarata pizkat atera dabe; orre in artekoa dogu Txomin Agirre, nobela idazle jator jatorra. An jaio zan 1888'garren urtean; eleiz-
-ikasketak Bilbo'on eta Gasteiz'en osotu ondoren, meza barria Urkiola'n ospatu ta laster Zumaia'ko karmeldar monjen ikastetxera bialdu eben kapellau; antxe bizi izan zan ogetamar urtetik gora, autortu ta itzaldiak egin. Izlari zan, eta ez edozelakoa: 1900'ko irailla en 8'an, adibidez, Begoña'ko Ama koroatua izan zanean, berak aldarrikatu eban sermoe bat.

Idaztea zan bere arlorik bikaiñena. Iru nobela daukaz sarri argitara emonak: *Añemendiko Lorea*, *Kresala ta Garaa*; irurok Eusjalerriko giro ta oiturak, gozoagozo, aizetzen ditu, mendikoak, itxasokaok eta baserrikoak. Il aurretxoan asirik eukan laugarren bat, *Ni ta Ni*, Markiaña aldean erdiaroko goraberak, Oiñaztarren eta Gana boatarren arteko istillu eta burrukak.

Arime on eta eder-zale baten jaube, gozo ta bigun idatzirik dagoz aren lanak. Itzaneutu be idatzi euskuzan ez edozelango poesiak, Donostiako "Euskalerrria'n argia tar a emonak geienak. Bere nobeletako pasarte batzuk, sentimentu aundiz idatziak dira.

R. M. Azkue

Itxas egalekoa au be, Lekeitiokoa, 1864'an jaioa eta Bilbo'n 1951'an illa. Euskalzale zan aita eta euskalzale semea, euskal idazle ta musikalaria. Euskal gai guztiai, baiña batez be gure izkuntzari, arlo guztietan, benetako

bizitasuna emon eustona. Gaztetatik ekarren euskal gauzetarako; seminarista zala, erriz erri ibilli euskal itz, esaera eta olako billa, geroago osotu eban eta gaur be gaintitu barik daukagun Euskeraz, Erderaz eta Frana tsez Iztegirako lanak batzen.

Ona iru zatitan aren euskal lanak ederrena. 1) Iztegi ta abar: Iruizkuntzetakoa ta sakelerako iztegia, 2) *Morfologia Vasca*; 3) *Gipuzkera osotua. Literatura-lanak*: 1) *Txirristadak*; 2) *Ardi galdua*; 3) *Euskalerrriaren Yakintza*; 4) *Ipuñak*. *Musika-lanak*: 1) *Eleizako eresiak*; 2) Iru oratorio: *Daniel, Lamindano ta Andra Urraka*; 3) Opera bi: *Ortzuri ta Urlo*; Cancionero popular vasco 12 guaa derno; 4) Euskal erri musika dalaata, ainbat lan.

Ondo aztertu eta sakondu ezker, askoren arteko lana Azkue'k bakarrik egin eban, bere bizitza luze guza tiak euskal arloari lotuta. Berari begira eukazan euskala erriko euskalzale jakitunak eta ainbat eta ainbat atzerria tar. 1918'an berak zirikatuta sortu zan Euskaltzaindia, sortu ta zuzendu eriotzararte. B arriro esanik be, erraldoi ikaragarria euskal litretan, guk ez dautsagu egundo ari ordaindu al izango euskal lanagaitik ak nerezi izan dausku beste.

JON GURUTZ IBARGUTXI

Ubidea'n jaio zan Ibargutxi 1883'an, eta bertan il zan 1969'an. Gasteiz'en osotu zitun bere eleiz-ikasketak, eta amaika urtez Latin, Filosofia eta Teologia ikasi ostean, 1908'an apaiztu zan antxe bertan Cadena y Eleta'ren esku-ezartez Zestafe'n, Marin'en eta Eskoria-tza'n arima zaintza egoñik, gerra aurretik, 1915 urtez, Eibar'en Ander Deunaren elizan. Gerra zala-ta, 1938'tik 1940'rarte, La Rochelle'ko San Luis eleizan egin eban apaiz-laguntza. Euskalerriratuta gero, nagusiak Badaran Errioxako errioxora bialdu eban; ondoren, ia ogei urtez Basauri'n bizi izan zan.

Euskal idazle finfiña. Luma eskuan ebala ibilli jakun beti, iñoiz be itxi barik. 1912'an, "JaungoikoaZale" bazkuna, Zornotzer, eta deitura bardiñeko elizkaria sortu ziranean, an zan beti Ibargutxi. "Jaungoik-Zale", "Ekin", "Euskera", "Karmel" eta abar idatzi eban. Eta Orixe'k onela: "Bizkai'en Eguzkitza aundia ta Ibargutxi idazle bikotea lakorik bai eta dogu beste iñungo Euskalerrrian? —Biribil esango dot, ezetz" (*Karmel*, 1960).

Bere abade lana albora itxi barik, itzaldi asko egin eban bazterretan, eta liburuetan be, oneik beintzat argia taratu ebazan: 1) *Loiola'ko Iñakiadeuna*; 2) *Jaungoikoa-ren Legeko Aginduak* (Zornotza, 1925); 3) *Eleiz Ama Deunaren Ikurtonak* (Zornotza, 1932); 4) *Edesti Deuna*

VI EUSKAL ASTEA

(Zornotza, 1936); 5) Geroko Bizitza (Bilbo, 1953); 6) *Otoiz* (Bilbo, 1955); 7) *Siñiskaiak* (Bilbo, 1959).

Idazle ona genduan Ibartutxi; erabili zituan gaiak gaitzak izanda be, berak errez ulertzeko moduan eskintzen euskuzan. Onela M. Zarate'k: Ibartutxi'k Darabilzan gaiak zail samarrak dira, bai. Baiña euskera aldetik bere (berak alan uste izan ez arren) zail samarrak dira. Euskera ondo ta sakon daki; beste euskal-etatik artzen dauz itz asko; Arabatarrak asmaurikoak bere ainbat artzen ditu. Ondasuntegi bat dira Ibartutxi'ren liburuak".

Alan eta guzti be, olakoxeak gara vu, Luis Mitxelenak' eta beste batzuk aitatu be ez dabe egiten euren literatur istorietan. Nik au esan bear dot: "Gaztetatik esku artean erabili dot Ibartutxi, eta mesede ederra egin izan daust.

PAULO ZAMARRIPA

Egundo nekatzen etzan langillea. Beti euskal arloari lotua. Ez ebazan, egia esateko, gai goitarrak artzen bere idazlanetarako, baiña txiri-txiri orain eta gero aspertu barik lanean, euskal lanean, biotzez maite eban euskerari, emona.

Laredo'n jaio zan, 1877an. Umore onekoa gazte-gaztetatik. Laredo'n jaio arren, Sondika'n bizitzako egunik geieanak egiña. Berak oban, umore obe goratuz: "Neu Sondikaraturik, daukat barre egiteko gogo". Eta orrela agertzen jaku bere liburu guztietan. Bermeo'n be egon zan aldikada baten, eta berak: "Barre egiteko erretzasun au berezkoa dot, arraiñak uretan ibiltea lez bear bada; gaiñera, emen, Bermeoa izaneko beste arrain-erri maitagarri onetan, ikasi dot".

Kutun zituan emen inguruko erri ta bazterrak; bere idatzietan be, onexek goratu ebazan batez be; Txorierrri alde ez eukan egundo be azturik. Eta ementxe il zan azkenez, 1950'an.

Euskal kezka bizia dozu Zamarripa abadea. II-agiñean ikusten eban bere izkuntza; ezin eroan olakorik, eta alegiñak alegin egin zituan berari bizirik eusteko. Eleiz-gizon genduan eta eleiz-gizonak Jainkoaz urrengo urko-laguna ta beronen izkuntza maite, eta a ek eleiz-ardurak izten eutsoen une guztietan orretan jardun oi eban, euskera ikasi, euskeraz idatzi liburu arin alaiak, eta euskeraz ez ekianari erakutsi. Ez ete lan bikaiña?

Idazle lez, asko idatzi euskun. Ona a en liburu batzuk, erderaz eta euskeraz: 1) *Gramatica Bizkaina*; 2) *Manual del Vascofrlo*; 3) *Vocabulario vasco-castellano - castellano-vasco*; 4) *Zaparradak eta*; 5) *Gora begira*; 6) *Kristauaren Dotriña*; 7) *Conjugaciones guipuzcoanas*; 8) *Anayak gara*; 9) *Kiki-kili*; 10) *Firi-firi*.

Sai ego-zabal baten egazkadarik ez daukagun Zamarripa'ren idazlanetan, baiña erritar euskera bizia bai. Mikel Zarate'k: "Zamarripak darabilen euskera jatorra

da, garbia ta erreza. Idazle zaarren eta erria en iturritik edan dau ura. Eta, jakiña, orrexegaitik da ain jatorra bere euskerea. Alkar-izketak, esakeraketa abar ondo joasten dira. Zenbat eberastasun euskera aldetik!

JUAN BAUTISTA EGUZKITZA

Begira gizaseme kezka jositako bat; ez gero kontzientzi kezka, izkuntza kezka bane-benetakoz baiña. Gure izkuntza en ziroak ekarren estu ta larri Eguzkitza abadea, euskal erria erdaldundu egin jakula ikusiz; au iñoa: "Izkuntza aldatzea erriaren gogo aldatzea da; baiña gogo aldatzeak, aurreragoko ziñeste, ekandu ta izkera en aldatzea beragaz daroa; auxegaitik, Euskalerrian, bere siñeskintza ta ekanduai, bere gogoari, gogo orren mendu ta izakera bereziari eutsi bear dautsagu; baiña oni eutsiteko, euskera galdu ez dedin, lan egin bear dogu".

Lemoa'n jaio zan Eguzkitza, 1875'an. Larrea'ko ikasetxean ikasi ebazan eleiz-karrerarako lenengo asi-masiak, gero Gasteiz'en osoturik beste ikasketak, Filosofia ta Teologia eta gai onein nasteko kultur-saillak. 1904'tik aurrera, bizitza osoa lez, Lekeitio'n emon eban; ementxe ikasten eben, ba, eleiz-izatea izan nai eban gazteak.

Buru aegikoa zan Eguzkitza, adimen sendo ta borondate obekoa Gerra aldian alde eragin eustoen andik, ra ta ona erabillia izan zan, azkenez espetxerata: An egoala idatzi eban oktaba legez egiña dagoan "Seme atxillotuari" deritxon olerkia. Estrofa bi, "Goiko Aitak" eta "Goiko Amak" presondegian lotutako semeari esana. Lemoa'n il zan 1939'an.

Euskaltzaindikao zan. Sermoi-meta aundia itxi eban argitaratzek. Asko idatzi eban aldizkarietan. Eta liburuok argitaratu: 1) *Garbitakiko Arimaen la*; 2) *Andra Mariaren Loretako illa*; 3) *Argi Donea*, bizkaieraz; 4) *Gizarte-auzia*.

Iker-lanean nabarmen dogu Eguzkitza. Orixe'k bein, 1961'an, Bizkaiko euskal idazleak goratuz, auxe idatzi eban Lemoatarrari buruz: ...nire ustez, irain-arte izan dogun euskal idazlerik bikaiñena" da Eguzkitza.

BIKTOR

Lur ona beti prest frutu onak ekarteko. Ezta geiegi esatea; euskal-erriak edozein lekutan dakaz gizaseme goresgarriak. Ona bat, beste askoren artean: Biktore Gariñandia, Zaldibar'en jaiola 1876'an, urteak joan urteak etorri, apaiz zintzo ta biotz-bera, lanean iraunkor eta porrokotatu, euskaltzale ospetsu ta jakitun izan zana. Epeiz-karrera amaitu ondoren, laster samar, Donostia'ko Jesuitetan daukagu organu jotzaille ta abesle ogetalau urte egin zituan; bertan il zan 1929'an.

Donostia'ra orduko aldikada baten Zamora'n egin

eban Garitaonendia'k organu jotea; zaldibartarra, baiña, etzan, geldi egotekoa eta erri-miñak joa egoan, eta euskal-zaletasuna be bizkortu, sutu ta indartu egin jako berak igarri barik lez; ederto idazten eban, euskera errez jorian, orixegaitik edo, Donostia'n argitaltzen zan "Argia" asterokoa en zuzendari izendatua izan zan, eta onek nai-koa lan leporatu arren, danari erantzun eutson.

Antzerkilari zan, eta ba-ditu komedi politikak sarri Bizkai onetan be emon dabezanak, euskal kutsuzkoak ain zuzen. Aren argitalpenak: 1) *Iziartxo*, komedia, *birritan* argitara emona; 2) *Usandizaga*, itzaldia; 3) *Aitona ta billoba*, atal biko antzerkia; sarri antzeztua, polita oso; 4) "Argia" asterokoa, 1921-1936, euskera utsean, berak sortua, zuzendu ta zortzi urtetan aurrera eroana; 5) *Ongillearen saria*, ekitaldi bitan komedia; 6) *Ipuin laburrrak umetxoentzat*; 7) *Atgi Donea*, beronek eraturiko batzaldi baten saritua, eta bizkaieraz be Zornotza'n, 1935'an, argitaratua, Eguzkitza'k antolatuturik. Liburu oso ona eleizetarako; 8) *Egutegia*, 1921-1936, "Argia" k' urtero atera ebana.

Ida gero izan ditu omenaldiak; 1930'an leengoa, Oña'n, ango ikasleak, eta ondoren Donostian; 1932'an, Aita Intza'r Damaso'k i zaldia egiñik, eta azkenez, 1956'an, beste bat, eleiz-aurreko oroitarria ipiñiz.

AITA IPOLITO; KARMELDARRA

Zeanuri'k gizon eta emakume Jainko-zale, langille ta errimeak emon dauz giz Idiak zear; gizaldi onek ez gitxi. Orrein artekoa da Aita Ipolito, bateoan Alejandro Larrakoetxea, ementxe Undurraga'ko Altzagutxi'n jaioa 1892'an. Bere idazlanak izenpetzean "Legoaldi", mendi tontortxo baten izena erabilli eban.

Filosofi ta Teologi ikasketak Burgos'en egiñik, 1916'an amaitu eban eleiz-karrera. Gero, irakasle izan zan ia bere bizitza guztian, lenengo Begoña'n eta gero Erroma'n; Eleiz-araudia edo Derecho Canonigo erakutsi eban. Karmel Ordenako Nagusi ixan zan emen eta Erroma'n. Opor-aldietan atsegin jakon gure zearkatzea. Berak azaltzen eban gaiari buruz ainbat artikulu boro-bildu ebazan. Markiña'n il zan, 1976'an.

Etzetik ekian euskera zaindu ta lantzen alegindu jakun. Baita erakusten be, Begoña'n maisu zalarik bereziki. Eta idazten Bilbo'ko "Euzko-Deya"-n; ementxe asi zan argitaratzen, aleman ikasi-ala, *Grimm Anayen Ipuinak*, geroago (1929) liburu biurturik. "Karmen'go Argia" sortu zanean (1931-1936), or idatzi eroian utsik egiteke bialdu oi eban zerbait Erroma'tik.

Bere ailda gero argitaratua izan zan, urte luzeetako lana, "Erroma'ko Eleizearen Aeaudia"; Kardaberaz Bazkunak azken urteotan argitara emona, 471 orrialdekoa. Euskera argi erreza darabil, gai zaillak be ulert-errez azalduz.

GABRIEL MANTEROLA

Beste abade langille egiazko bat Zeanuri'n, Gabriel Manterola. Apaiz jator, Jainko-zale urduria. Igaz egin geuntson omenaldi ederra, eleizan eta errian. Kristoren itza ta Jainko-erreinua izan zituan bizitza osoko goiburu.

Berton munduratu zan Manterola 1990'an. Umetan bere errian eskolatua. Gero, eleiz-deiari erantzunik, Galdako'n eta Gasteiz'en eleiz-ikasketak osotuz, abadetza artu ebanean, Eibar'en apai —laguntzaile ta moja kapillautza egin gerrararte. Garai artan, ume mordo bategaz erbestera baildu eban, Ingalterra'n eta Frantzia'n egonik; an ikasi zitun ingles eta frantsez, an be arima-zaintza gogoz ekiñik. 1958'an » biurtu zan bere etxera, antxe bizi izan zan 1977'an il zan arte.

Manterola'k, bere eliz-arazoai eskatua emon ondoren, bertatik joian bere betiko euskal lanera. Gaztetatik il arte ez eban laga esku'ik idaz-luma. Eibar'tik asi zan idazten 'Uaungoiko-Zale' aldizkarian, bertsoz eta prosazeta orrelaxe jarraitu eban bizitza guztian. Amaikatxo idatzi eban arek! Oraindik, alan be, ez doguz batu bere lanak. Izen-ordeak erabilten zitun lanak izenpetzerakaon: "Gama", "Mitarga", "Urigoitia", "Gabirel" eta abar.

Neurtitzez be naikoa idatzi euskun, Eibar'en bizi zala batez be; antxe egoala, argitaratu eban "Goi-izpiak eritxon poesi-liburua, bere pentsamentu biozkada samurrez bete. Orduko aldizkariak, Jesusen Biotza en Deyak, adibidez, goratu eban.

Mikel

Txorierriko Lezama'n jaio zan M. Zarate, 1935'an. Liburu-zaletasuna somatu eban gaztetatik, eta ikasteari emon eutsan bizi-bizibizi izan zan guztian orretan ekiñik. Apa ejadore ikasketak osotu zituan lenengo, baiña etzan ori bere egiazko deia, Jainkoak gizon eta emakume bakotxari emon oi dautsona; eleiz-gizon izango zan lezamarra, eta munduari agur egiñez, 21 urteko, Derio'n asi eban apaiz-karrera. Abadetza artu ondoren, arima zaintza asi bearko. Urte batzuetan, berari egokion emonda, Gerena'n egon zan; gero Derio'n, Deustun, Izkuntza eskolan, eta abar, beti urduri ta langille, erakusten eta idazten.

Gerena'n aurkitzen zala sakon-sakon ikasi eban euskerea, gurasoengandik artutako aberri-izkuntza. Filosofia ikasten ebillela asi zan idazten "Karmel"-en eta "Anaitasuna"-n. Euskeraz ta erderaz diardu. Baserritarren aotik jasotako esaera ederrez jazten ditu bere pentsamentuak; bertsoz naiz prosaz apaintzen dauz onek. Euskerearen batasuna nai eban, baiña naste barik, apurka apurka egiña.

VI EUSKAL ASTEA

Ona aren liburu batzuk: 1) *Gure Meza dauna* (1960); 2) *Gure Salbaziño Egintza* (1967); 3) *Meza Liburu txikia* (1968); 4) *Bizkaiko Euskal Idazleak* (1970); 5) *Haurgintza miñezkoa* (1972); 6) *Euskal Deklinabidea* (1975); 7) *Ipuin antzeko aleli mingotsak* (1975); 8) *Euskal Literatura* (1977); 9) *Higidura berdea* (1977); 10) *Euskal Ortografia* (1978); 11) *Bizipenen bultzadaz* (1978), eta abar.

Kezkaren batek jota gabiltz guztiok munduan. Orre-la Zarate be; esan dot zein zan: euskerak eta onen batasunak. Ez eban opa euskera barririk, onela baiño: Zarra ta barria buztarturik. Nozbait esan zan kezka orrek obiratu ebalá, 1979'an.

Gotzon Garitaonandia

Bein onela margoztu neban nik Gotzon'en irudia: "Abade argita langillea, euskal idazleoso eragiña. Urdu-litz'en jaio zan 1936'-7-20'an. Eleiz-gizon izan nairik, Derio'ko Ikastetxe Nagusian osotu eban eleiz-karrera guztia. Sollube ertzeko Mañu erritxoan egin eban arimazaintza; biotz-zabaleko ta zerbitzari leial, erriak benetan maite izan eban. Mundi-aldean eta Bermeo'n gazte talde autatua bere esanera, naiz mendirako, naiz euskal lanerako, naiz eleiz-arazcetarako beti gertu ta prest eukon. Konturatu barik etorri jakongaixo ganobakoak eroan eban Aita en altzora 1970-10-15'an".

Idazle lez lan polita egiten ziarduan. Itxaropen gar-

tsua zan gure izkuntzarentzat, eta mundu au gazterik itxi ez ba leu, lan bipilla burutuko eban gure euskera-
ren onerako. 195Tan asi zan idazten "Karmel", "**en Papini italier**
idazle fiñaren ainbat idazlan atsegin euskeratu argitaratu euskuzan; Paul VI'garren Aita Santuaren "progressio" be berak euskeraz ipiñi eban. 196Tan, "Balendik Uriona", txirringulari gazterik illa en bizitza argitaratu eban. Azkenez, ba-ditu olerki atsegiñik, ederto borobilduak be.

Azkena

Ona zerbait esanda jarri dausten gaiari buruz, gai zabalegia arin adierazteko. Euskal apaizak ez dira iñoiz be geldi egon. Arima-zain izanik, onetan lanari lotu ta ekin bear. Euskera, barriz, erri onen izkuntza, ta abadeok euskeraz egin eben euren eziketa, euren arimazaintza. Zelan? Eleizetan eta kanpoan; sermoe ta itzaldiz, leengo gizaldietan eta gaur-egunean.

Ugaria da Euskalerrri osoan, eta Bizkaian, apaizak itxi dabene euskal Elerti edo Literatura; laikoak baiño askoz kementsuago jardun dabe orretan. Izango dabez euren akatsak, baiña abadeakaitik bizi da oindiño gure euskera ederra.

AITA ONAINDIA

IKASTALDIAREN ASIERA

ESKOLA PUBLIKOAN

Aurtengo ikasturte asiera ez da izan oso polita ikastetxe publiko askotan.

Arrankura edo asarre ugari ta aundiak izan dira Maixuen artean toki batzuetan beintzat.

Niri esan dausten moduan, ikasleak gitxitu egin dira, orregaitik ikas-gelak bera etorri dira, orduan lanpostu batzuk be gitxitu.

Onela Maixu batzuk ikas-gela barik aurkitu dira, ta beste leku batera aldendu bear. Nortzuk aldendu? Zuzendariak agintzen dauenak.

Beste toki barrian, ez ezagunak, ikasle desezagunak, etxetik urrun askotan, ta irakasle onei, GOGOIA kendu yate bere lana ONDO eroateko.

Ta bertan gelditu diranak be ez dagoz pozik lengo tokian.

Zer jazoten da ba? Lanpostu batzuk ei dagoz, geitxoago iraba ten dan tokiak. Guztiak nai dabe postu orreik ta danentzako EZ.

Euren artean asi da orregaitik GUDA bat. Orrek ekarri dauz, bekañiak, ezin ikusiak, ez AGURTZEA euren artean, arpegi illunak eukitea, asarreak ugari ta abar.

Edozein modutan, oso giro txarra ikastetxe baten, ta irakasleen artean. Eurak izan bear dira ADIBIDE on-ona erakustekoak, ez ba'dabe emoten, zer jazoko da? Orduan ASIERATIK, txarto, baiño txarrago asitea. ADIBIDE zatarra emoten dabe bata beste lagunekin olan ibiltea, ez berba egitea, egin bear danean; ikasleak zituazio orretan, laster konturako dira euren artean ez dirala konpontzen. Gaur ez ba'dira konturatuten, arin ulertuko dabe euren asarrea, ez aitutea, adibide ona emon bear leukenak.

Jente askok diñoen lez, orain amar urteko giroa ez dago ikasleen artean.

Orain aurrak agintzen dabe toki askotan, ta ganera AUSARTU batzuen menpean ei dagoz guztiak. Askotan aurkitzen dira OIUKA, asarre, eztabaida baten, ta onetan, oingo maixua, IZAERA aundikoa ez bada, guztiz menperatuta aurkitzen da, ta IXILLIK egon bear.

Ori ikastola baten TAMALGARRIA da.

Orain mutiko KOSKOR ausartu batzuk kalean, etxeetan, ta ikastola barruan agintzen dabe. Ta olan doa gure gizartea.

Zorionez danak ez dira onelakoak, baiña, bai, ugari.

IRAKASKUNTZA TA AZKUNTZA

Jente geienak pentzatzen dabe, ITZ bi oneik, bat esan nai dabela, edo bardiñak dirala. Ta OKER dagoz, onetan asmetan dabenak.

Batetik bestera, alde aundia dago. Ori bai, ERABATERA egin leiken lana da, geiago, egin bear diranak dira, bestela gure IRAKASTEIA ez da osoa.

Irakustea da gure buruan EZAUPEN batzuk, gero bear izango doguzan gauza batzuk sartzea, gauza orreik bear-bearrezkoak izango-doguz geure bizitza guztian. Gizon edo andra jakintsua izan leike, baiña EZI bakoa be bai...

Jakitunak, zerbait dakiela ta sarritan alboko guztiak nai dabez bere menpean euki, zapaldu ta menperatu beti.

Gizarteko arremetan oso zorrotza guztiekin, jasan-ezin iñokin, agindari gogorak, izaera txarra, modu txarrak edozein gauzatarako ta abar. Olako batzuk sarritan ikusi dodaz neure inguruan, gauzaren ren bat ona bada-be, lau edo bots aurkakoak eukiten dabez.

Bestaldera, ondo EZIKO gizon edo andrak, beste modu batzuk eukiten dabez gizartean ta arremetan.

Olako jentea agertzen da gizartean irribarreka, gozo, apal, bakoitzari berea emoten dautzie, naite batzuetan berea galdu bear, ta ixil-ixillik aurrera jarraitzen dabe. Olakoa izateko ez da bear jakituri aundirik, naikoa da zentzun apur bat eukitea ta apala izatea.

Geienetan, oneina da mundua, zergaitik euli geiago atraptzen da EZTI tantaka bateaz, kilo bat gibelminaz baiño.

Jakintsu arropuzak pentsatzen dabe, enparau guztiak dirala ez jakiñak ta kokoloak.

Ni txikitxua nintzanean, olako batek esaten eban: EZ DAGOLA EZ JAKIÑA BAIÑO AUSARTUARIK. baiña gero, bera erotuta il zan.

Gizon ondo ezikoa, bada bakoitzari berea emoten dautso, ala-ta-be kristiñau zintzoa bada.

Erakuntza ta eziketa, biak, batera egiten ez ba'dira, gizon OSOA edo konpletoea ezin izan.

Itsaz ontzia txikia zuzen ipinteko ta egunen baten kaira ondo elduteko, txikitako OKERRAK zuzendu egin bear dira, ta orduan gizon edo ontzia elduko da KAIRA.

Ondo EZITEN ez badoguz gereko gizonak, ez dogu ezertxo be ere egin; kanpai otsak aundiak, gero aizeak eroango dauz.

ESKOLETAKO BATZORDEAK

Eskoletako Batzarra dala-ta, gauza asko edo ipuin ugari aspalditxoan etorri dira nire belarrietara. Geienak okerrerako, kalterako, ta au ez dala polita Eskola barruan.

Guraso batzuk pentsatzen dabe, zelan edo alan suurra sartu bear dabela, askotan, ezertxo jakin barik erakus kontuan.

Batetik ausartuak diralako, ta bestetik, arazo orretan ez dakielako piperrik ere.

Geienak etxean ixillik egon bear, ta ikastetxean zerbait izango dirala-ta, antxe nai dabe agertu euren buru koskorra ta ez jakifia. Orain ez dira lengo ogei urteko sasoiak.

Orduan euki genduan BATZORDE adibidekoa, ona baiño, ohea.

Erakus kontuan ez ziran sartzen ez zuzendariak ez ez maixuekin.

Lagundu aldan guztia.

Ipiñi eben IDAZTEGI eder bat ikasle ta maixuak irakurteko, ta ganera, euretriko bat ipiñi liburuak bananduteko.

Eurek laguntzen euskuen KIROL kontuan be, leia-keta batzuk egiteko bai eskola barrutian ta bai beste eskolakaz.

Antzerkiak egiten ziran eskola barruan ta euren seme-alabak ikusteko jente asko etorten ziran.

Askenez, orduan, euki genduan, eskoletan egoan ABEZBATZIK ederrena Eskola barruan onein kantuak entzun ziran, ta be bai BUENOS AIREZEN. ANTZOKIAN BE.

Orduan gu gengozan POZIK ta ARRO, geure eskoa lea zala oso bikaña ta adibidezkoa. Orduan egiten genduan gure lana BURU-BELARRI, ez genduan BEARRA, neke bat lez, ostantzean arimeko lan bat bezela, gure salbazio bezela.

Olako sasoitik onantz gauza asko aldatu da bai bertan lenagoko eskolan ta be bai beste askotan.

Ori baiño geiago, ondiño SASOI oneko irakasleak ta lenago oso GOGOZ emoten eben maixuak, oraintxe, "DESIETAN" dagoz JUBILATZEKO, ta ondiño adin onenean dagoz.

Ezin dot ulertu gauza ori, edo oso egoera txarra egon bear dau euren artean.

BESTE GERTAGARRI BI

Orain illabete bat dala topau nintzan kalean aintziñeko lagun bategaz. Lenengotan ez neban ezagutu denbora gitxi egon zalako nigaz ta bera be apur bat aldatuta egoan, zartuta.

Bein gure nortasuna jakin ta gero, gure alkarizketa izan zan oraingo Eskoletako EGOEREARI buruz zelan ez?

Astegun langabekoa zan, ta biok, ez geunkan ezertarako presarik. Gure alkarizketa apur bat luzerokoa izan zan, ainbeste berri emoten eustalako ta guztiz arrituta entzuten neutsalako.

Bere KOLKO barruan eukan gauza asko agertu eustan, bai aintxi nekoak, ta be bai, oraingoak, oraingoak batzuk oso zatarrak niretzat ezin ulertuak.

Santurtzi inguruan dago bere ikastetxea, iñolaz be, aldi aretan ez dago girorik ederrena Eskola kontuan, kaleko ateka txarra ta etxetakoak ere, eskolan sartuta dagoz, ta bai kaleko etxeko itz zatarrak entzuten dira eskolan, bietako ERAGIPENA ikusten da barruan.

Jarraian esan eustan, berari jazo yakona.

Egun baten azalpen bat egiten egoala, mutiko koskor ta lotzabako batek betean esan euitzan: ZU MOZKOR BAT ZARA.

Bera, gelditu ei zan KOKATUA, edo TONTON eginda. Ezekian zer egin. Biak joan ei ziran Zuzendariengana. Solas asko bai baiña zer egin jakin ez ak be. Ikastolako Batzarra alkartu anbe soluzio aundirik emon ta azkenean, mutiltxoa gelditu ei ezelako ZIGORRIK gabe. Inspekzioñoa be sartu ei zan tartean.

Andik aldi batera, beste antzerako JAZOERA bat jazo ei zan bertan ikastetxean. Lengoa, zatarra bazan, oraingoa ez politagoa.

Neskatza satar batek danen aurrean, ezertxo be lotsabarrik Maistriari esan ei eutzan: ZU MERETZIZ BAT ZARA.

Itz orrek esan nai dau, emakume bateri ezan leion ITZIK txarrena edo negargarriena.

Barrero lengo bideak, zuzendari ta Inspekzio ta danak tartean sartuta. Erabagiri sendorik ezelakorik be ez.

Dana aizeak eroan. Barriketa asko, ta erabaki sendorik ez. Aldi bietan, ez dot uste, neska-mutillak ori edo berba orreik euren barrutik urten da, egin ebezanik, norbaitek AIXEATU edo zirikatu barik, etxean edo kalean.

Ainbestekoak, ez dira entzun dodazen olako batzuk, baiña ainbeste entzun dodaz, ta orrelan badago gure Eskola Publikoa, naiko ILDA DAGOLA ESAN GEINKE.

Olako jente edo ume orretan ipinten badogu gure ETORKIZUNA, gizon eta emakume JATORRAK bialduak izango gara, baiña, bestaldera.

IÑIGO LOIOLA'KOA JERUSALENTZA

Iñigo'k berak edesten deusku:

"1523-ko urte a etan Jerusalemenera joateko erromes asko etorri'ziran; baiña geienak euren lurraldera itzuli ziran turkiarrak kristiñauai Rodas ugartea kendu barri eutseelako".

"Baiña nik neuretzako esaten neban: ontzi bakar bat Jerusalem'era joaten bada be, gure Jaunak ni an eroango nau".

"Amairu lagun joan ziran gure aurretik urten zan erromes-ontzian, eta zortzi edo bederatzi bakarrik gertzen giñan Txipre'ko gobernaria en ontzirako".

Iñigo sartu zan ontziak "La Negrona" zuan izena. Itsasontzi andi eta ederra zan: 19 kañoi zituan eta 52 tostarteko edo ontzi-mutil. Erromes bakotxak 26 dukat emon bear zituan joan-etorria egiteko, baiña Iñigo'ri, Benezia'ko Agintariari eskerrak, dana parkatu eutsoen.

Loiolatarra baiño urte gutxi lenago joan zan erromes batek esaten deusku; Jerusalem'era joan gura dauan erromesak iru zorro ondo beteak eroan bear dituela: lenengo zorroa diruz betea, bideko gastuai erantzuteko; bigarrena neurribako pazientzizko zorroa turkiarrak kristiñauai egiten eutseezan tratu txarrak onez eroateko; irugarren zorroa fedez betea, bideko neke guztiak Jaungoikoagatik gainduteko... Iñigo'k bigarren eta irugarren zorroak ondo beteta eukazan, baiña lenengoa erabat utsik. Jaungoikoak zelan edo alan beteko eutsalakoan pozik joian.

"Baiña ontzia itsasoratzekean sukar gatx andi bat etorri jatan, eta egun batzuetan osasunez txarto egon

ondoren, sukarrak alde egin eustan. Eta ontziak itsasora urten bear eban egunean, ain zuzen, nik purga bat artu neban. Eta nire lagunak osagillari, ea Jerusalem'era joan nintekean itandu eutsoen, eta onek esan eban, ontziratzekotan ontzian sartu nintekeela baiña Jerusalem'en obiratua izateko".

"Baiña alan be ni ontziratu nintzan, eta egun aretan bertan ontzia urten zan. Eta agotik ainbeste bota neban, oso arinduta, eta guztiz sendatuta aurkitu nintzan".

"Ontzi onetan danen aurrean zikinkeria eta gordinkeria asko egiten ziran, eta nik gogor artzen nituan. Ontzian bertan nigaz zetozan españiar batzuk olakorik ez egiteko esaten eusten, ontzikoak ni ugarteren batean bakarrik izteko asmotan ebizela-eta, baina Jaungoiko lagun Txipre'ra laster eldu giñan".

"An gure ontzia itzi, eta oiñez andik amar lekuatara -55 kilometro— egoan "Las Salinas" izeneko beste kaira joan giñan, eta an erromes ontzian sartu giñan. Eta emen be, beste ontzian egin neban lez, ez neban jateko Jaungoikoagan neukan itxaropena baiño beste gauzarik sartu".

"Garai onetan gure Jauna askotan agertzen jatan, eta onek poz eta indar andia emoten eustan. Gauza borobil eta andi bat, urrezkoaren antzeko bat ikusten nebala iruditen jatan, eta au Txipre'tik urten eta Lur Santuko Jafa'raino agertu jatan".

GOIKOETXEA'tar IÑAKI



Bizkaia beti

Gure erriaren aurrerapenagaitik.
Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.
Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.
Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

Bizkaia beti.

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CA-A IJE AHORROS
VIZCAINA